«Pertsonei grabatzen ari zarela esaten ez badiezu, inoiz ez da zilegi grabatzea»

MIGUEL ANGEL QUINTANA PAZ
Valladolideko (Espainia) Unibertsitateko irakaslea

Kamera ezkutuak (II)

Komunikazioaren Deontologia eta Etika irakasten ditu Miguel Angel Quintana Pazek Miguel de Cervantes unibertsitatean.

URTZI URKIZU
Donostia

Kamera ezkutuen gaia ikasleekin jorratzen duenean eztabaida sutsu eta interesgarriak sortzen direla aitortu du Miguel Angel Quintana Paz irakasleak (Salamanca, Espainia, 1973).

Zerk bultzatuta ekin diozu kamera ezkutuen gaia ikertzeari?

Aurrerapen teknologikoei esker, gai berrienetakoa da kazetaritzan eta komunikazioaren etikan. Kasu zehatzak ezagutzen ditugu denok, eta eskolan emozio biziz defendatu edo gaitzesten dituzte ikasleek.

***Cuadernos de periodistas* argitalpenerako idatzi duzun artikulu batean diozu grabatzean engainatzeak ekar dezakeela besteek esatea haiek ari zirela engainatzen. Engainatzeak arriskua du, ezta?**

Zer konfiantza eman behar digu kazetari batek bere istorioa kontatzen hastean etengabe engainatzen aritu dela onartzen badu? Oso lan *ona* egiteko asmoa duenez, pentsa dezake gezurra justifikatuta dagoela. Baina hartzaileak konfiantzarik ez du izango gezurretan ari denarekin.

Kazetaritzan helburuak ez ditu bitartekoak justifikatzen?

Bai, horrela da. Hori kamera ezkutuen laburpen ona da.

George Orwellen *1984* eleberria aipatzen duzu artikuluan. Kameraz betetako mundu bat posible al da etorkizunean?

Teknikoki posible litzateke, baina politikoki jendea aurka egongo litzateke. Etikoki ez litzateke batere desiragarria izango. Bizitzan egin dugun guztia grabatua balego, oso beldurgarria litzateke hori.

Zein kasutan iruditzen zaizu zuri zilegi litzatekeela ezkutuko kamerak erabiltzea?

Nire tesia honako hau da: pertsonei grabatzen ari zarela esaten ez badiezu, etikoki inoiz ez da zilegi grabatzea. Kamera ezkutuak erabilita «gizarteari ongia» egin diola esaten duenean ere, konfiantza galarazi du kazetariak, engainatzen aritu baita eta bestearen askatasuna urratu baitu. Hori etikoki ez da zilegi.

Agustin Macias Castillo irakasleak dio kamera ezkutuak jartzea bizitza pribatua garatzen den lekuan esku sartzea dela.

Auzitegiek kasuistikaren arabera jokatzen dute. Interes publikoa dagoenean, onartzen dute batzuetan, eta besteetan ez. Hainbat eskubide sartzen ari dira hor jokoan. Beti bat ateratzen da garaile.

Adibide moduan, Espainiako kate batzuek kamera ezkutuak erabili izan dituzte Euskal Herriko egoera politikoaren bertsio manipulatu bat emateko. Zer iritzi duzu horren inguruan?

Beste kasuetan bezala, gaitzetsi egiten dut kamera ezkutuak erabitzea, ez nuke salbuespenik egingo. Gainerako kasuei buruz esaten dudanak balio du Antena3ek eta Tele5k Euskadiri buruz eginiko erreportajeentzat ere.

Kamera ezkutuen erabilera lege aldetik zigortzerik ba al dago?

Zaila da hori. Etikoki gaizki dagoen ezer ez du legeak zigortzen. Alor horretan zuhurrak izatea komeni da, etikatik zuzenbide arlora pasatzean beste aditu batzuen iritzia onetsiko nuke. Ohorezko eskubidea dago hor, baina hori gabe ere edozein kasutan gaizki irudituko litzaidake kamera ezkutuak erabiltzea.

Artikuluan aipatzen duzu kazetariak ez direla poliziak. Etorkizunari begira asaldatzeko motiborik ba al dugu kamera ezkutuen erabilera dela eta?

Bai, baina kazetariek berek dute larritzeko motiboa. Etengabe iruzurrezko metodoak erabiltzen dituen kazetariak bere buelta izango du, eta jendea ez da harekin fidatuko. Hedabide batek bide horiek asko erabiltzen baditu, azkenean kalte hartuko du, hartzaileak zuzenean fikziora joko baitu.



BERRIA